

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

309/2021 Foru Agindua, azaroaren 8koa. Lacervillan, Berantevillako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, egongo den hondakin uren araztegi (HUA) berriaren proiektuaren interes publikoa adieraztea

Urbide Arabako Ur Partzuergoak (aurrerantzean, Urbide) obretarako udal baimena eskatu dio Berantevillako Udalari, Lacervillan hondakin uren araztegi (HUA) berria egiteko proiekturako.

Berantevillako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Proiektuaren xedea 50 biztanle-baliokiderentzako arazketa sistema berri bat da, dekantagailu-digestore sistema trinko batek eta hormigoi armatuzko biltegi aurrefabrikatuz egindako iragazki biologiko batek osatua, gehi hondakin uren saneamenduko kolektorea berritzea eta 3,50 metroko zabalera izango duen sarbidea egitea. Dokumentu teknikoan jasota dago kontuan hartu dela Lacervillako zonaren ekologia eta paisaia balioa, ahalik eta kalte txikiena egiten duen trazadura proposatu dela eta obraren estetika ere kontuan hartu dela.

Udal arkitektoak egindako txostenean jasotzen denez, sare berria, HUA berria eta erre kara doan azken isurbidea ez dira aurreko sistemaren kokapen berean egingo, eta, beraz, lurzoruaren okupazioa aldatuko da, eta HUA eta azken isurbidea lurzoru urbanizaezinean kokatuko dira. Proiektu osoak honako katastro lurzati hauei eragiten die: 2-382, Huertas kalea, 2-176, 2-175, 2-234 eta 2-110 A eta B. Proiektuaren zati batek urbanizazio bidez finkatu gabeko hiri lurzoruari eragiten dio (LA.05)-bizitegirakoa, eta sektorizatutako lurzoru urbanizagarriari (LA.06)-bizitegirakoa. Zehazki, araztegi berria 2 poligonoko 110-B azpilurzatian kokatzea aurreikusten da, Berantevillako lurzoru urbanizaezinean, zeina "J.2.5. Zaindutako zonak: Nekazaritza eta abeltzaintza interesekoak" gisa kalifikatuta baitago. Berantevillako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 1.6.1.2 artikulua honako hau ezartzen du: "Babes bereziko J1 eta zaindutako J2 landa zonetan kalifikazio orokorrak zuzenean baimendutako eraikuntzako erabilera eta jarduerak"; 8. apartatua: "Nekazaritza eta abeltzaintza arloko interesa dela eta zaindutako J.2.5 zonan baimendutako erabilerak. a) Interes sozialeko eta erabilera publikoko eraikinak eta instalazioak, beren izaera eta ezaugarriak direla eta, ezinbestean zona honetan kokatu behar direnak. (...)"

Espedientean jasota dago udal txosten teknikoa, alde zuzen jakinarazpenaren araubidearen mendeko jarduera sailkatuaren katalogoari buruzkoa, bai eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak hondakin urak isurtzeko baimena emateko emandako ebazpena ere.

2021eko uztailaren 29an, eskaeraren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako. Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak adierazi du proiektua ingurumen ebaluazioaren prozeduraren pean dauden kasuen artean dagoela 3/1998 Legeak (EAEko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra) sare nagusiko hondakin-uren instalazioetarako xedatutakoaren arabera, eta jarraitu behar zaiola Ingurumen Ebaluaziorako 21/2013 Legeak 45., 46., 47. eta 48. artikuluetan ezarritako prozedurari.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa. Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzetik babestu duen eta

landa egoeran dagoen lurzoruan, "salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamendua-
ren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko
jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa
antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu
beharrekoak badira".

Bat etorri 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo
dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko
deklaratuak zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak,
betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hoge
eguneko jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Irailaren 3ko 232/2021 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onespina
ematea eta jendaurrean jartzeko 20 eguneko epea hastea ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera
(argitalpena abuztuaren 13an egin zen, 91 zenbakian). Horretarako emandako epearen barruan
ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Bigarrena. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 86.2 artikuluan jasotakoaren
arabera, uren arazketa toki erakundeentzat funtsezkotzat eta erreserbatutzat jotako zerbitzuetako
bat da. Beste alde batetik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. arti-
kuluak udalerrien berezko eskumenen artean ezartzen du zerbitzuak ematea hiri erabilera
uraren ziklo integrarean. Arlo honen barruan sartzen dira herriguneetako hiriko hondakin uren
eta euri uren saneamendua edo bilketa eta hiriko hondakin uren arazketa. Arabako Lurralde
Historikoko Kontzejuen 11/1995 Foru Arauaren 7. artikuluan, erakunde horiei tradizioz dagozkien
eskumenen artean hau jasotzen da: "Erakundearen jabetzakoak izanik, jendeak erabiltzen dituen
instalazioak eraiki, handitu, kontserbatu eta konpontzea," bai eta "...Kontzejuaren barrutian,
interes berezia duten obrak (...) burutzea eta bestelako zerbitzuak ematea" ere.

Proiektuaren sustatzaileari, hau da, Urbide partzuergoari dagokionez, Berantevillako Udalak
eta Lacedivillako Kontzejuak, beste udal eta kontzeju batzuekin eta Arabako Foru Aldundiare-
kin, Consorcio de Aguas de Álava-Urbide Arabako Ur Partzuergoa osatzen dute, elkarturik ur
hornikuntza eta saneamenduko zerbitzu eta azpiegiturak -haien zentzurik zabalenean- ezarri
eta ustiatzeko. Horren barnean daude "intertzeptazio/arazketa" zerbitzua (saneamendua lehen
mailako sarean) eta "estolda sarean" (saneamendua bigarren mailako sarean).

Proiektuaren kokalekuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 12/2019 Dekretua-
ren bidez onetsitako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek, aplikazio arauen II. eranskinean, in-
gurune fisikoaren antolamendurako arauak ezartzen dituzte. Ezaugarri edo zonakatzeko zehatzaren
arabera esleitutako helburuari begira, urbanizaezintzat sailkatutako lurzoruan onar daitezkeen
erabilera orokorren artean, 2.c.4. apartatuak azpiegiturak jasotzen ditu, eta horien artean espre-
suki aipatzen dira araztegiak eta antzeko inpaktua duten onura publikoko instalazioak, A motako
izaera ez-linealeko zerbitzuen instalazio teknikoak direnez. Erabilera-matrizeak, 2.d.4 apartatuan,
zehazten du ezen, "Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala" kategoriako zonetan, onar dai-
tezkeen jardueren artean A motako izaera ez-linealeko zerbitzuen instalazio teknikoak daudela.

EAEko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialak (irailaren 16ko 177/2014 Dekre-
tuaren bidez onetsia), 42. artikuluan, landa lurzoruan baimendutako erabilera artean ezartzen
ditu komunitate ekipamenduetarako instalazioak, publikoak edo pribatuak, beren izaera eta
ezaugarriengatik landa ingurunean kokatu behar diren zerbitzuak ematera bideratuak, alde
aurretik onura publikokotzat edo gizarte interesekotzat adieraziak, eta berariaz adierazten du
zerbitzu publikoen ekipamendua, "beren ezaugarri funtzionalengatik, bateraezinak izan baitai-
tezke batez ere beste erabilera batzuetarako diren zonetan ezartzeko".

Interes publikoa, aztertzen ari den kasuan, proiektuaren izaeratik dator. Proiektuaren hel-
burua Lacervillan arazketa sistema berri bat ezartzea eta hondakin uren saneamenduko kolek-
torea berritzea da, eta justifikatuta dago kokaleku zehatz horretan egin beharra, azpiegituraren
berezko ezaugarriak kontuan hartuta.

Arabako Foru Aldundiaren Idazkaritza Orokorrak egindako ziurtagiri batean, jasotzen da Josean Galera Carrillo jauna abstenitu egin dela, Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua denez, eta prozedura horretan Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko diputatuak ordeztu duela, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 325/219 Foru Dekretuan, zeinaren bidez foru diputatuak izendatu baitziren 2019-2023 legegintzaldirako, ezarritakoaren ondorioz.

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren abstentzioagatik haren zereginak betetzen ari den Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatu Nagusiaren uztailaren 3ko 325/2019 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lacervillan, Berantevillako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, egongo den hondakin uren araztegi (HUA) berriaren proiektuaren interes publikoa adieraztea, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legek 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Bigarrena. Ebazpen honen jakinarazpenarekin batera, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak egindako txostenaren kopia bidaltzea.

Hirugarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Laugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko zaio, egintza eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin. Interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsu ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 8a

Ingurumen eta Hirigintza Sailaren jarduneko foru diputatua
BAIMENDUTA. M^a PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO